# ERAKUSLEIHOA

SAIAKERA

**'Gaueko eztabaidak'**

Agustin Arrieta. Erein. 168 orr. 16 euro.



NARRATIBA

**'Lima'**

Miren Gorrotxategi. Elkar. 164 orr. 15,40 euro




## Elkarrizketaren ahalmena garrantzia

Kongresu batera joan diren lau gaztek elkar ezagutu dute herri txiki batean. Egunez kongresuko hitzaldiak entzun eta gero, gauero pizten da mahai baten inguruan haien arteko solasaldia. Gaueko eztabaidak dira: egia, zientzia, erlijioa, maitasuna, sexu-generoa, artea, fikzioa, balioak edo zoriontasuna dituzte, besteak beste, eztabaidagai. Gazteen ekarpenak ondoz ondo kateatuz eta txandakatuz eratu du Agustin Arrieta Urtizbereak elkarrizketa formatuko testu hau.

## Euskal mitologiaren ateak irekiz

Lima munduko neskarik zorigaiztokoena sentitzen da uda ondoren herrira itzultzen denean. Lehenengo sorpresa oporretan ezagututako Markos institutuan agertzen denean jasoko du. Hortik aurrera, ustekabekoak bata bestearen ondotik etorriko zaizkio: gurasoek haurra zela mendian aurkitu zutela jakingo du, Paulita tutorea desagertu egingo da eta Maia irakasle bitxiak hartuko du haren lekua. Ba ote dute loturarik gertaera horiek guztiek? Markos, Brenda eta Egoitzek lagunduko diote misterio horiek guztiak argitzen.

# ZALDI EROA

